

1. ERANSKINA: PEDIATRIAKO LEKUALDAKETAKO SCOREA

EPDTk proposatutako pediatriako lekualdaketa *scorea* garraio sanitario batean lekuz aldatu behar diren pazienteei aplikatuko zaie, pazientea artatu duen medikuak balorazioa egin ondoren.

Scorearen puntuazioa lortzeko, pazientearen egoera fisiopatologikoa eta bizi-euskarriko beharrak islatzen dituzten parametroen eta konstanteen balorazio objektiboa egiten da (ikusitako itemak xehakaturatu dituen score-aren taula).

Garraioa eskatzean pazienteak daukan egoera klinikoaren arabera, lekualdaketa *scoreak* puntuazio bat edo bestea emango digu, eta, horren arabera, lekualdaketa garraio sanitario motarik egokiena gomendatuko.

Nolanahi ere, koordinazio-zentroari garraioa eskatzean, *scorearen* puntuazioaz gain, beste faktore batzuk ere hartu behar dira kontuan, hala nola klinikoki okerrera egiteko arriskua, pazienteak garraiatu bitartean teknika egin behar diren edo ez, baliabideen eskuragarritasuna eta ospitalera iristeko behar den denbora. Alderdi horiek garrantzitsuak dira, pazienteak lekualdatzeko behar den baliabide mota baldintza baitezakete.

Paziente eta eremu geografiko jakin batzuetan, erabilgarria izan daiteke BEAe (Bizi-euskarri aurreratua, erizainarekin) bidezko lekualdaketa; izan ere, BEAm (Bizi-euskarri aurreratua, medikuarekin) baten ekintza jakin batzuk egin ditzakete erizainek, lekualdaketa eskatzen duen medikuaren eta zentro koordinatzaileko medikuaren laguntzarekin.

Bidalitako baliabidea ez bada *scorearen* puntuazioaren arabera adierazitakoa, komeni da horren zergatia idatziz jasotzea.

PEDIATRIAKO LEKUALDAKETAKO SCOREAREN HELBURUA: lortutako puntuazioaren arabera lekualdaketa egiteko unean behar den garraio sanitarioa aurreikustea.

OHARRA: *score* honek ez du balio paziente baten egoerak anbulantzia lekualdatzea eskatzen duen ala ez erabakitzeko. Fakultatiboak balorazioa egin eta pazienteak anbulantzia eramatea erabaki ostean aplikatu behar da *scorea*, zer baliabide mota behar den aurreikusteko. Hala ere, puntuazioa 0 bada, norberaren ibilgailua erabiltzea planteatu daiteke, kasuaren arabera.

Lekualdaketarako zer baliabide mota behar den aurreikusteko <i>scorea</i> *		
*Score-a anbulantzia eskatzean pazienteak duen egoerari dagokio		
Oxigenoterapia	Ez	0
	Sudurreko oxigeno-kanulak edo Venturi maskara	1
	Erreserboriodun maskara	4
Arnasketa	Adinerako normala	0
	Arnas maiztasuna > p90 edo < p10 (<i>ikusi 1. taula</i>) edo arnasketa-patroi anormala	3
	Arnasteko euskarria (CPAP, fluxu handia, aireztapen mekanikoa)	4
Hemodinamikoa	Egonkorra. Ez du behar zainetako biderik.	0
	Egonkorra, baina zainetako bidea edo sueroterapiaren infusio motela behar du.	1
	Ezegonkorra (bihotz-maiztasuna edo TA aldatuta, <i>ikusi 2. eta 3. taulak</i>) edo zainbarneko bolumena azkar infusionatzeko edo hezur barneko kanalizatze beharra	4
CGS edo AVDN neurologikoa	15 (normala)	0
	14 edo hitzeko estimulari erantzuten dio (V)	3
	≤ 13 edo minari bakarrik erantzuten dio (D) edo ez du erantzuten	4
Monitorizatzeko beharra	Ez	0
	BM eta O ₂ aren saturazio jarraitua	1
	Bihotz-biriketako monitorizazio osoa	4
Larrialdiko medikazioaren beharra	Ez	0
	Hauetako bat edo batzuk: β-2 inh., adrenalina inh. (1 dosi), IN/larruazalpeko/zainbarneko opioidea (1 dosi)	1
	Hauetakoren bat: glukagoia, antikomizialak, zainbarneko adenosina, muskulu barneko edo zainbarneko adrenalina, hedapena gatz-serum fisiologikoarekin, adrenalina inhalatuaren edo IN/larruazalpeko/zainbarneko opioideen dosi bat baino gehiago.	4

Puntuazioa	Baliabide mota
0* - 4ko batukaria	Oinarrizko bizi-euskarria (OBE)
4 bakarra edo batukaria \geq 5	Bizi-euskarri aurreratua medikuarekin (BEAm) edo erizainarekin (BEAe)

*0 puntu lortu badira: norberaren ibilgailuan lekualdatzea baloratu behar da (kasuaren arabera)

1. taula

Arnas maiztasunaren taula			
Adina	p10	p50	p90
0-3 hil.	34	43	57
3-6 hil.	33	41	55
6-9 hil.	31	39	52
9-12 hil.	30	37	50
12-18 hil.	28	35	46
18-24 hil.	25	31	40
2-3 urte	22	28	34
3-4 urte	21	25	29
4-6 urte	20	23	27
6-8 urte	18	21	24
8-12 urte	16	19	22
12-14 urte	15	18	21

2. taula

Adinaren arabera HIPOTENSIOTZAT jotzen diren PAS zifrak (ikusi EDPTren ABCDE dokumentua):
Jaioberriak: < 60 mmHg
Bularreko haurrak: < 70 mmHg
1-10 urteko haurrak: -P5 (PASaren beheko muga) = 70 mmHg + (2 x adina urteetan) -P50 presio arterial sistolikoa = 90 mmHg + (2 x adina urteetan)
10 urtetik gorako haurrak: < 90 mmHg
Ez bada lortzen pulsu periferikoak haztatzea, jo hipotentsiotzat

3. taula

Adina	² Bihotz-maiztasuna (taupada/minutu)
0-1 urte	100-160
1-3 urte	90-150
3-5 urte	80-140
6-11 urte	70-120
12-14 urte	60-100